Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA:

UNBEko kiroldegiko erabiltzaileen autobus-garraioaren zerbitzua ematea.

2. ZERBITZUA ESKAINTZEKO EGUTEGIA:

Zerbitzua honako egun hauetan emango da:

- Lan-egunetan, astelehenetik ostiralera, eskola-egutegiko egunetan; adjudikaziodunari egutegi hori gutxienez hilabete lehenago jakinaraziko zaio.

Zerbitzu-egunak/hilabetea	
16	iraila
23	urria
20	azaroa
14	abendua
18	urtarrila
20	otsaila
20	martxoa
14	apirila
20	maiatza
15	ekaina
180	**Zerbitzu-egunak, guztira**

(*) Aurreikusitako egutegiaren arabera, egutegi ofiziala argitaratzeko zain.

3. IBILBIDEA ETA ORDUTEGIAK

Irteerak Egogain kaletik	Irteerak UNBEtik
16:00	16:10
16:20	16:30
16:40	16:50
17:08*	17:25
	18.15
17:40	19:00
18:00	19:15
18:30	19:45
19:30	20:15

*

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- 17:08ko tartean, autobusa Azitainetik aterako da; ondoren, geldialdi bat egingo du Egogainen.
- Ibilbide bietan tarteko geldialdi bat egingo da Ubitxako iturrian.

4. ADJUDIKAZIODUNAK JASOKO DUEN KONTRAPRESTAZIOA

Kontratuaren adjudikaziodunak kontraprestazio hau jasoko du:

- Gehienez 275,00 €, zerbitzua ematen den egun bakoitzeko, lizitazio-mota gisa finkatzen dena. Udalak zuzenean ordainduko dio kontratuaren adjudikaziodunari.
- 0,5 € zuzenean ordainduko zaizkio kontratuaren adjudikaziodunari, zerbitzuko erabiltzaile bakoitzak joan-etorriko bidaia bakoitzeko. Kontratuaren adjudikaziodunak 10 €-ra arteko bonuak saldu ahal izango ditu, 10 egunerako balioko dutenak (euro 1 egunean).
- Adjudikaziodunak autobusean bertan ere saldu beharko ditu bonuak.
  OHARRA: Kontzeptu honengatik urtean 5.000 € inguru biltzea aurreikusten da.

5. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

Zerbitzua eskaintzen duen autobusak gutxienez 36 plaza + gidaria izan beharko ditu.

Kontratua gauzatzeko erabiliko den autobusak bidaiarien segurtasunaren arloan indarrean dagoen araudia beteko du, eta zerbitzu horiek betetzeko beharrezkoak diren eta indarrean dauden zirkulazio-baimen guztiak izango ditu.

Ibilgailuak irisgarria izan behar du mugikortasun mugatuko pertsonen garraiorako, bai gurpil-aulkiekin bai gurpil-aulkirik gabe.

Kontratuaren adjudikaziodunak, Udalaren eskariz, zerbitzuaren erabiltzailtzaileen kopurua aurkeztu beharko du, hilabeteka ordenatuta.

Adjudikaziodunak komunikazio-kanal bat eduki beharko du erabiltzaileekin, zalantzak eta kontsultak jasotzeko; gutxienez, telefono-zenbaki bat eta erabiltzailearen arretarako helbide elektroniko bat jarriko ditu eskura.

6. HIZKUNTZA-BALDINTZAK

Zerbitzua eman behar duten autobus-gidariek gaitasuna izango dute erabiltzaileei euskaraz eta gaztelaniaz arreta emateko.

Erabiltzaileekin lehen hitza euskaraz egingo da beti; gero, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan.

Umeekin eta gazteekin euskaraz egingo da beti.

Autobusean edo geltokietan jartzen diren jarraibide eta ohar orokorrak euskaraz izango dira, mezuak ezagunak eta ulergarriak direnean. Ezinezkoa denean, ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
fceaea5840a5656b961e608c6e2da9bd3ed08b6e
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202500002139
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
YURI EGAÑA OLANO	13/05/2025 11:53:44

Erabiltzaileei salduko zaizkien bonuak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
fceaea5840a5656b961e608c6e2da9bd3ed08b6e
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202500002139
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
YURI EGAÑA OLANO	13/05/2025 11:53:44